

..

## URTEKO SEIGARREN IGANDEA B

Lehen irakugaia

( *Zer zion Lege zaharrak lepradunez edo legenardunez* )

**Lebitarren liburutik 13, 1-2 . 45-46**

- 1 Jaunak erran zioten Moisi eta Aaroni:**  
**2 “ Norbaiti larruazalean ateratzen bazaio handitsu, zornadura edo bixika bat, legenarena bezalako zauria sortuz, ereman bezate Aaron apezarenganat, edo haren seme apez batenganat.**  
**45 Legenak joa denak, arropa urratuak ibiliko ditu, buru-ilea nahasia eta aurpegia erdi estalia, eta oihu egingen du: “ Kutsatua, kutsatua!”.**  
**46 Zauriak iraunen dion artean, kutsatua izanen da. Horrengatik bakarrik biziko da, kanpalekutik berex.**

Lebitarren liburua berezia da Biblian : apezgoa, kultuan eta egun guzietako bizian begiratu behar diren arauak baizik ez dira aipu. Bainan historiak argitzen du liburu hunen erran-nahia : Izrael desterrutik itzulia da (J.K. aitzineko seigarren mende azkenean), bainan ez da gehiago ez profetik ez erregerik. Orduan apezek hartu dute herriaren gidaritza, herria Jainkoari leial bizi dadin. Heientzat, Jainkoak eskaini Elkargoa - Jainkoaren eta herriaren arteko adixkidantza - oroz gaineratik estimatu eta hazi behar da. Hortik, apezek liburu hunen harian markatzen duten bidea, ardura hertsia, erran daiteke : bide xendra.

Lebitarren liburuko pasarte hau irakurtzen da gaur, igande huntako Ebanjelioak Jesusen mirakulu bat kondatzen daukulakotz : legendun baten sendatzea. Jesusen egintza hori hobeki konprenitzen dugu Lebitarren liburuko pasarte hau irakurtu ondoan. Ikusten dugu gaixo legendunak nola tratatuak ziren : bizien artetik urrunduak. Eritasunaren gainera, kasik hilak bezala ikusiak, arbuiatuak. Bainan ez arrazoinik gabe. Legena biziki kutsakorra zen, eta sendatzerik ez, edo guti. Hortakotz, sendatzea mirakulu bat bezala ikusia zen.

Legenak joa zuen Job bere baitarik urrundu zen zikintegi baten gainerat, eta han bizi zen, tellaki puska batez goxatzen zuela gaitzak emaiten zion hatza. Legenduna sendatzen bazen, apez batenganat joan behar zuen, segurtamena eman zezon jendetarat sar zitekela, garbiketak eta sakrifizioak egin ondoan. Jesusen denboran usaiak holatsu ziren oraino. Ebanjelioaren erakaspak emeki-emeki egin zuen bere bidea, Jainkoa urrikamendu dela, nehor ez duela baztertzen, zorigaitz guzietarik soleitu nahi gaituela. Berak ez zuen besterik egin (gaurko Ebanjelioa).

*Leloa : Zuk nauzu, Jauna, beiratuko  
Salbamendua dut gerriko.*

**Dohatsu zinez bere gaizkitik garbi dena,  
Baitu guzien barkamena.  
Dohatsu zinez hoben gabetu den gizona,  
Hak adiskide baitu Jauna.**

**Aitortu dautzut egina nuen bekatua,  
Ez dut erdizka salatua.  
Erran dut erran : "Aitortuko dut nik egina,  
Barka zadazun, Jainko Jauna".**

**Eta zuk, Jauna, kendu dautazu bekatua,  
Behin, betikotz barkatua.  
Gizon zuzenak, pitz, Jauna baitan, bozkaria !  
Bihotz garbiak, hau loria !**

## Bigarren irakurgaia

*( Ez izan nehorentzat erorbide )*

**Jondoni Paulok Korintiarreri 10,31-11,1**

- Haurrideak,**
- 31 dezazuen jan, edan edo beste edozer egin,  
egizue dena Jainkoaren aintzarako.**
- 32 Ez izan erorbide, ez Juduentzat, ez paganoentzat,  
ez Jainkoaren Elizarentzat.**
- 33 Nik bezala egizue:  
gauza guzietan deneri atsegin emaitera entseiatzen naiz;  
ez dut nere ona bilatzen, besterena baizik, salba daitezzen.**
- 11,1 Nik bezala egizue,  
Kristok bezala egiten baitut nihaurek.**

Testo huntarik bi erakaspén atera daitezke :

1. Gure bizia beste gisa batetara ikus dezakegu.
2. Zer nola egin.

- Jainkoa gizon egin delakotz, gure biziko alderdi bat ere ez da mespretxagarri. Jainkoa orotan gure idurikoa izan da, orotan haren idurikoa izan gaitzke. Egiten dugun guzitik : "Jan, edan edo beste edozer gauza" ez da deus arruntkeriak jorik. Gure egitate guziak on eta onesgarri izan daitezke Jainkoaren aitzinean. Bainan, dio Paulok, egitate horiek berak behaztopabide izan daitezke beste zenbaitentzat : "Ez izan erorbide ez juduentzat, ez paganoentzat, ez Jainkoaren Elizarentzat."

Paulok hemen harrotzen duen arazoa idoloeri eskaini haragiarena da. Haragi horiek saltzen ziren gero merkatuan. Girixtino bati haizu ote zitzaion horietarik jatea? Girixtinoaren libertatea da hemen jokoan.

Gutun huntan berean Paulok bietan errepikatzen du : *”Dena haizu da, bainan ez da dena on”* (6,12; 10,23). « *Dena haizu da* » : Jesusen baitan sinesten duena ez da alde guzietarik bortxu eta debekatu. Paulorentzat ere librantza handia izan zen judaismoaren legetetik ateratzea : hainbeste manamendu zorrotz, zehatz eta xehe-mehe ebakitzaz, garbiketez, sabatoaz. Hori guzia ezeztatua da. Jainkoak ez du holakorik galdegiten. Manamendu bakarra : maitatzea. Ez gira gehiago « *legearen esku, baizik Jainkoaren onginahiaren esku* ». (Er 6,14).

- Horrek ez du erran nahi zernahi on dela ! « *Dena haizu da, bainan ez da dena on* » dio Paulok. Lehenik eta bat, zer balio du juduen legetetik ateratzea beste buztarri baten pean sartzeko ? Galaziarri idazten diote Paulok : « *Zinez libre izaiteko libratu gaitu kristok* » (5,1). Gero eta bi, manamendu bat bada, bakarra, gure bizi guzia gidatu behar duena : Maitatzea. San Agustinek Pauloren erakaspena ederki laburbiltzen du : « *Maita zazu eta nahi duzuna egizu.* » Horrek erran nahi du guhauren biziaren kudeatzera libre girela, bainan gure hautuak egin behar ditugula besteak gogoan, besteeri kalterik egin gabe, besteeri ongia eginez : « *Ez izan erorbide, ez juduentzat, ez paganoentzat, ez Jainkoaren Elizarentzat.*

## Ebanjelioa

*Alleluia, alleluia  
Profeta handi bat agertu zaiku,  
eta jautsi zaio Jainkoa bere jendeari.*

### **Jesu Kristoren Ebanjelioa san Marken liburutik 1, 40-45**

- 40** Lepradun bat otoizka etorri zitzaion Jesusi,  
eta belaunikaturik, erran zion:  
“ Nahi baduzu, garbi nezakezu.”
- 41** Jesusek, urrikaldurik, eskua luzatu eta hunkitu zuen, erranez:  
“ Nahi dut, izan zaite garbi.”
- 42** Ordu berean, joan zitzaion lepra , eta garbi gelditu zen.
- 43** Berehala Jesusek igorri zuen, eta larderiatu, erranez:
- 44** “ Kasu! Nehori deusik ez erran, bainan zoazi, apezari ager zaite.  
Eta eskain zure garbiketaren ordainez  
Moisek Legean manatua , froga bat izan dezaten.”
- 45** Hura aldiz, atera orduko, hasi zen berria kridatzen eta zabaltzen.  
Eta geroztik, Jesus ez zaitekeen agerian sar herri batean:  
kanpoan egoiten zen bazterlekuetan.  
Halere , nonahitik jendea etortzen zitzaion.

Pasarte hunekin, Jesusen lehen misione bidaian gira. Ordu arte kafarnaumen egona zen. Orai Jesusek Galilea guzia kurrutzen du, berriona zabalduz.

Kondaira hau bi mailetakoa da. Lehena, legendunaren sendatzea. Bainan aldi berean hemen hasten da beste historia bat, luzeagoa, larriagoa : Jesusek egin duen geldigabeko guduka Jainkoaren egiazko aurpegiaren erakusteko. Zeren legendunaren hunkitzeko hirriskua hartuz, Jesusen ausartziak eskandala bat ederra egin baitzuen. Markek hori du ehiaz erakusten “*garbi*”, “*garbiketa*” lau aldiz errepikatuz. « *Garbi* » izaitea orduko griña zen. Garbitasun errituala, erlisione garbitasuna -guretzat osoki arrotza- Jainkoarekin harremanetan sartzeko baldintza baitezpadakoa zen. Lebitarren liburuak (ikus gaurko lehen irakurgaia) garbitasun arauak emaiten ditu, eta Markek berak aipu ditu urruntxago : « *Farisauek, eta juduek oro har, ez dute jaten eskuak untsa ikuzi gabe, zaharren ohidurari atxikiak baitira. Plazatik etxeratzean ere ez dute jaten beren buruen garbiketa egin gabe ; eta beste gauza anitzeri ere ohiduraz atxikiak dira, hala nola kopa, pitxer eta untzien garbitzeari.* » (7,3-4)

« *Garbiketaren* » griñak, berez, ustezko « *kutsatuen* » baztertzeraz zeraman. Orduan uste zen eritasuna bekatuaren seinale zela. Ideia horrek berez ekartzen zuen erriak ez zirela hunki behar (ikus lehen irakurgaiak). « *Zauriak irauenen dion artean, kutsatua izanen da. Horrengatik, bakarrik biziko da, kanpalekutik berex.* » Horrek erran nahi du Jesusek ez zuela legendun hartarat hurbildu behar. Ez ote da izigarri baztertua izaita Jainkoaren izenean ! Bainan legenduna eta Jesus elgarren ganat joan dira, lege kontra, eta ausartzia hortan berean izan daiteke mirakulua.

Legenduna otoizka belauniko erortzen zaio Jesusi, Mesias balitz bezala : « *Nahi baduzu, garbitzen ahal nauzu.* » Ordu hetan Mesiasen beha zagon jende guzia, eta bazakiten zorion osoa ekarriko zuela, nigarrak ez oihurik izanen ez zen mundu batean, Izai profetak mezutu bezala (65,19). Hori dio legendunak Jesusi galdegiten : denbora mesianikoez hitzeman sendatzea. Eta Jesusek haren esperantza betetzen du : « *Nahi dut, izan zaite garbi.* »

Jesusek deplauki aitortzen du beraz jendeek igurikatzen zuten hura bera dela. Geroxago Joanes Bataiatzailearen dizipulueri erranen diote : « *Zoazte Joanesi mezutzeraz zer entzuten eta ikusten duzuen : itsuek ikusten dute eta maingurak badabiltza, legendunak garbi gelditzen dira eta elkorrek entzuten dute...* » (Mt 11,4-5).

Mirakulu hunekin Jesusek bazterketa ororen kontrako guduka hasten du. Legendun ohiak lau haizetaraz oihukatuko duen Berri Ona hau da : nehor ez daitekela zokoratua izan Jainkoaren izenean. Hori bai Berri Ona pobreentzat ! Ez dira bakarrik legea edo beste edozoin eritasunetik sendatuak, « *garbituak* » dira, erran nahi baita « *Jainkoaren adiskide* » eginak.

Jainkoaren iduriko izan nahi badugu, ez dugu nehor baztertu behar, bainan, alderantziz besteeri hurbildu, Jesus legendunari bezala. Bainan ezin uka amodioaren bururaino joaiteko, Jesusek legearen kuskua hautsi duela, hain xuxen legea zinez betetzeko : « *Zeure ondoko laguna maitatuko duzu zeure burua bezala* ». Hori da hori legearen azala urratu eta mamia aurkitzea. Bainan denek ez zezaketen holakorik konpreni, denek ez baitakite egiazko libertatea zer den. Horrengatik manatzen dio Jesusek legendun ohiari ixilik egoiteko : « *Kasu ! Nehori deusik ez erran...* » Kurutzeraz deraman bidean sartua da Jesus oraidanik.